

Kultura Ondarea Generoaren arabera Interpretatzeko Nazioarteko I. Foroa

***Ondarea, emakumeen emaria
Heritage, Women's Legacy
Patrimonio, herencia de mujer***

Sarean, 2021eko urtarrilaren 27an

Foroaren egitura

Foroak hiru gai-multzo nagusi izango ditu, eta ondarea genero-ikuspegitik interpretatzeari buruzko nazioarteko eta tokiko esperientziak aurkezteko balioko dute.

Women Storytelling, edo kultura-ondarea genero-ikuspegitik nola komunikatu

Bloke honetan, orain arte genero-ikuspegiarekin antolatu diren Ondarearen Europako Jardunaldien **koordinazio-esperientziak** bilduko dira. Estatuko, eskualdeko eta tokiko adibideak eta administrazio publikoetatik, elkarte zibiletatik eta babes pribatuetatik abiatutako ekimenak aukeratu dira:

- ***Emakumeen emaria.*** Aintzane Eguilior/Amaia Apraiz - Bizkaia. Bizkaiko Foru Aldundia 2018.
- ***Extraordinary Women.*** Sarah Holloway - Ingalaterra. European Heritage Days 2018.
- ***Journées de Matrimoine.*** Olivier Darronat - Île-de-France. Association HF Île-de-France, 2015-2019.
- ***Giornate europee del patrimonio.*** Valentina Catagnano. Italia. Coordinatrice nazionale

Emakume izenarekin, inspirazio iturri diren emakumezko irudiak

Bloke honetarako, **kultura-ondarea hedatzeko proiektuak** hautatu dira. Proiektu horien ardatz nagusiak emakumezko figura garrantzitsuak dira, beren esanahi historiko, artistiko, politiko eta profesionalagatik. Europako kultura-ondareari sortzaile edo mezenas gisa lagundu dioten emakumeak dira, beren garaian aintzatespena lortu zutenak, eta, orain, esparru desberdinetan egindako ekarpenengatik aldarrikatu behar ditugunak. Aukeratutako esperientziak hainbat estatu inplikatzan dituzten mugaz gaindiko planteamenduetatik tokiko ekimenetara doaz, baita nazio eta eskualde mailako jardueretatik ere, eta askotariko planteamenduak biltzen dituzte, hala nola bisita gidatuak, botanikari buruzko hitzaldiak, erakusketak edo ibilbideak:

- ***Marija Auersperg Attems Project.*** Mateja Racevski - Eslovenia-Austria-Italia
- ***Women's Creativity since the Modern Movemente*** Caterina Franchini – Italia
- ***Movimiento vasco para la visibilización de las mujeres en wikipedia.*** Sonia Francisco – Bizkaia

Memoria femeninoak: emakumeen ondarearen sozializazioa

Azken blokeak askotariko programak biltzen ditu, baina helburu komun bat dutenak: emakumeen kultura-ondarea heztea, prestatzea, transmititzea, komunikatzea. Museoak, liburutegiak eta nazio-, eskualde- eta toki-mailako beste kultura-ekipamendu batzuk, erakusketa birtualak, bisita espezifikoak, irakurketa-saioak, antzerki-emanaldiak eta genero-ikuspegia funtsezko duten beste jarduera asko bultzatzen dituztenak:

- **Relecturas. Itinerarios museales en clave de género.** Liliane I. Cuesta – Valencia
- **Programación cultural en femenino.** María Castejón Leorza – Nafarroa
- **Objetivo de género en la programación del museo. El caso de La Encartada.** M^a José Torrecilla - Bizkaia

Eztabaida / Discussion

Dinamizatzailea: Ainara Martínez Matía.

Asmoa estrategia komunak identifikatzen saiatzea da, kultura-ondarea eta generoa funtsezko piezak diren proiektuak garatzeko, jardunbide eta erabilera egokien liburu zuri bat sortze aldera.

Hauetara kontrastatu beharreko gaiak:

1. Erresistentziak eta zailtasunak horrelako esperientziei heltzeko.
2. Nola prestatu ziren parte-hartzaileak (boluntarioak, gidariak, interpreteak, hizlariak, irakasleak) genero-ikuspegiaren eremu espezifikoan.
3. Zer ekarpen egin diezaioke esperientzia bakoitzak ondarearen interpretazioa genero-ikuspegitik landuko duen Europako proiektu global bati.

Emaitzen laburpen/proposamen batekin amaituko dugu, eta honako hauek onartu eta

baliozkotuko dute:

1. Lantaldeak/hizlariak
2. Bertaratutakoak

WOMEN'S LEGACY KOORDINAZIO TALDEA

- Amaia Apraiz Sahagún
- Aintzane Eguilior Mancisidor
- Ainara Martínez Matía
- M^a José Torrecilla Orbea